

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 28/2018 Erabakia, urtarrilaren 30ekoa. Onartzea Araban berrikuntza sustatzeko laguntzen 2018ko ekitaldirako deialdia (Araba Berritzaile)

Berrikuntza sustatzeko politika jendeak, oro har, onartutako jarduera publiko nagusietako bat da hazkunde ekonomikoa bizkortzeko; izan ere, munduko ekonomiarako jokaleku berriak planteatzen duen lehiakortasuna hobetzeko beharrei ematen zaien erantzuna da

Erabat onartuta dago berrikuntza lehiakortasunaren oinarriko alderdietako bat dela; beraz, erakunde ugari, besteak beste, ELGEk, gobernu jarduera nagusi bihurtu du, eta lurralde eta toki eragileak bultzatzen ditu hura sustatzera eta, horretarako, haiek koordinatzen ditu. Era berean, Europar Batasunak, "Berrikuntzaren aldeko batasuna" ekimenaren harira, proposatzen dituen neurrien artean hauek nabarmentzen dira: bikaintasuna eta espezializazio adimenduna sustatu beharra, unibertsitatearen, ikerketa zentroen eta enpresen arteko lankidetzaren sendotzea, berrikuntza sistemaren emakumeek duten lekua hobetzea eta ezagutzaren arloko gastuei lehen-tasuna ematea.

Adiera hedatuaren araberak berrikuntza da produktu (ondasun edo zerbitzu) berri edo oso hobe bat, edo erakundearen barne jardunbideetan, lantokiaren antolamenduan edo kanpoko harremanetan prozesu, merkaturatzeko metodo edo antolamendu metodo berri bat sartzea.

Horiek horrela, Arabako Foru Aldundiak uste du berrikuntzaren alde egitea ezinbestekoa dela Arabako ekonomiaren jasangarritasunerako eta hazkunderako. Horregatik, beharrezko jotzen du berrikuntza jarduerak babestea gainerako administrazio publikoekin eta sistema eragileekin batera eta haien osagarri. Horretarako, konpromisoa hartzen du toki esparruan Arabako elkar-teei lagunduko diela XXI. mendeak, alegia, ekonomia eta gizarte globalago batek, eskaintzen dituen desafio, erronka eta aukerei aurre egiten.

Azken urteetan, Euskadik RIS3 Espezializazio Adimenduen Estrategia definitu du, eta hiru lehentasun zehaztu ditu, honako hauekin lotuta: fabrikazio aurreratua, energia eta biozientziak. Lehentasun horiek, era berean, garrantzitsuak dira Arabako enpresentzat.

Lehenengo lehentasuna, fabrikazio aurreratua – Industria 4.0, garrantzitsua da Arabako ekoizpen ehunarentzat, manufakturan oso espezializatua delako. Hortaz, industria kontzeptu berri horretarantzko iragaitea azkartu beharra dago, bereziki ETE eta mikro ETE-etan.

Industria 4.0ren funtsa da industria iraultzaren aurrerapen guztiak (makinak, prozesuak, fabrikak) lotzea iraultza digitalaren aurrerapenekin (internet, sareak, sistemak), teknologia digitalak sartzearen bidez, horrek ahalbidetuko duelarik prozesu, produktu eta are negozio eredu berriak garatzea.

Gizartea eta industria digitalizatzeak erronkak dakartza, esaterako hauexek: lankidetzaren bidezko diseinua, malgutasuna eta eraginkortasuna fabrikazioan, ekoizpen sortak eta denbora murriztea, eredu logistikoko adimendunak sortzea, kanalak eraldatzea, bezeroaren premiak aurreikustea, hiperkonektagarritasuna, trazabilitate dimentsioaniztuna, espezializazioa, baliozko industria ekosistemak sortzea, jasangarritasuna eta produktua pertsonalizatzea. Halaber, gizartea eta industria digitalizatzeak aukerak sortzen ditu industria sektorearentzat, zeinak egokitu egin beharko ditu bere prozesuak, produktuak eta negozio ereduak. Erronka horiei arrakastaz erantzunez gero, industria eredu adimendun eta konektatu berria sortu ahalko da, gauza izango

dena lehiatzeko mundu global eta digitalizatuan. Digitalizazio prozesu horrek guztiz beharrezko egiten du zibersegurtasun teknologien sarrera erabat zabaltzea, Euskadiko ZiberSegurtasun Zentroa Arabako Lurralde Historikoan ezartzeak dakarren abagunea baliatuz.

Era berean, Arabako Foru Aldundiak lehen aipatutako beste bi lehentasun estrategikoetan —energia eta biozientziak— enpresa ehuna garatzearen alde egingo du eta, zehazki, energiaren pilaketan eta sendagaien garapenean, lurraldean erreferentziatzko zentroak daudela aprobetxatuta, hala nola IKZ Energigune eta farmazia garapeneko poloa.

Ondorioz, Arabako Foru Aldundiak, jakitun zer garrantzia duen berrikuntzak gure garapenerako eta Arabako ekoizpen sarearen eguneratze eta lehiakortasunerako, erabaki du berrikuntzan diharduten elkarteak laguntzea eta, behar izanez gero, hari lotutako kontratazio berriak egitea. Kontuan hartuko dira, bereziki, zibersegurtasunarekin, energiaren pilaketarekin eta sendagaien berrikuntzarekin zerikusia duten jardunak.

Horiek horrela, erabaki honen bidez aginduzko deialdia egiten da Araban berrikuntza (Álava Innova) sustatzeko laguntzak emateko, zeina aintzat hartu beharko baitute berrikuntzarako ekimenek, betiere Diputatuen Kontseiluak martxoaren 6ko 17/2012 Foru Dekretuaren bitartez onartutako oinarri orokorren esparruan (ALHAO, 36. zk., 2012ko martxoaren 26koa), kontuan harturik ondoren foru dekretu hori Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 18ko 6/2014 Foru Dekretuak aldatu zuela (ALHAO, 23. zk., 2014ko otsailaren 26koa), hartara ahalik eta zabalkunderik handiena ematearren eta behar bezala betetzearen publizitate, norgehiagoka eta objektibitate eta berdintasun eta diskriminaziorik ezaren printzipioak.

Horregatik, diputatuorde eta Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreekaren Saileko diputatuak hala proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honakoa

ERABAKI DUT

Lehenengoa. Araban berrikuntza sustatzeko laguntzen 2018ko ekitaldirako deialdi publikoa (Alava Innova) onartzea (erabaki honi erantsi zaio).

Bigarrena. Deialdia arautzeko kontuan hartu behar dira dirulaguntzak lehiaren araubidean emateko oinarri arautzaile orokorrak, martxoaren 6ko Diputatuen Kontseiluaren 17/2012 Foru Dekretuaren bidez onartuak (ALHAO, 36. zk., 2012ko martxoaren 26koa), eta geroago egin zitzaizen aldaketa (otsailaren 18ko Diputatuen Kontseiluaren 6/2014 Foru Dekretua, ALHAOn argitaratua, 23. zenbakian, 2014ko otsailaren 26koan), bai eta erabaki honen eranskinean xedatutakoa ere.

Hirugarrena. Erabaki honen bidez araututako dirulaguntzak aurrekontu partida hauen kontura ordainduko dira:

— 2018rako indarrean dagoen Arabako Foru Aldundiaren aurrekontu antolamendua-
ren "10601.0702.7700002 Araba Berritzaile enpresak", 1.250.000,00 eurokoa, hartutakoaren erreferentzia 18.1.18. 105. 67/000 izanik.

— 2018rako indarrean dagoen Arabako Foru Aldundiaren aurrekontu antolamendua-
ren "10601.0702.7700003 Araba Berritzaile autonomoak", 48.000,00 eurokoa, hartutakoaren erreferentzia 18.1.18. 105. 65/000 izanik.

— 2018rako indarrean dagoen Arabako Foru Aldundiaren aurrekontu antolamendua-
ren "10601.0702.7810001 Araba Berritzaile elkarteak", 75.000,00 eurokoa, hartutakoaren erreferentzia 18.1.18. 105. 66/000 izanik.

Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 6ko 17/2012 Foru Dekretuaren bidez onartutako oinarri orokorren 7.2. oinarria betez, saileko diputatu titularrari ahalmena ematen zaio aurrekontuko partida bakoitzari esleitutako funtsak birbanatzeko, Balorazio Batzordeak hala proposatuta. Horretarako, ebazpena emango du, betiere deialdiaren aurrekontu osoa errespetatuz.

Deialdiak ongi funtzionatzea bermatzeko, gehienezko zenbateko guztiaren %10erainoko kopuru gehigarria ezarri da, Arabako Lurralde Historikoaren Dirulaguntzei buruzko 11/2016 Foru Arauko 21.2. artikuluan, urriaren 19koan, ezarri zenez.

Laugarrena. Ebazpen honen bidez administrazio bidea amaituko da. Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikulua arabera, berraztertze aukerako errekurtsoa aurkeztu ahalko da Diputatuaren Kontseiluan hau argitaratu eta hurrengo egunetik hilabeteko epea edo, bestela, zuzenean aurkaratu ahalko da administrazioarekiko auzien jurisdikzioan hau argitaratu eta hurrengo egunetik bi hilabeteko epean, jurisdikzio eskudunean.

Bosgarrena. Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko urtarrilaren 30a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Diputatu nagusiordea eta Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreka Saileko foru diputatua

MARIA PILAR GARCÍA DE SALAZAR OLANO

Ekonomia Garapenaren zuzendaria

JAVIER HERNANDO GARCÍA

ERANSKINA**ARABAN 2018KO EKITALDIRAKO BERRIKUNTZA SUSTATZEKO
LAGUNTZA DEIALDIA (ALAVA INNOVA)****1. artikulua. Helburua**

Deialdi honen helburua Araban berrikuntza sustatzea da, norgehiagoka erregimeneko dirulaguntzak emanez Arabako ekoizpen egituraren ekonomia modernizatzen eta haren lehiakortasuna hobetzen laguntzen duten proiektuak eta/edo jarduerak egiten dituzten erakundeei.

2. artikulua. Aurrekontu partidak eta gehieneko zenbateko osoa

Deialdi honen bidez araututako dirulaguntzak Arabako Foru Aldundiaren aurrekontuko gastuen aurrekontu partida hauen kontura ordainduko dira:

– 2018rako indarrean dagoen Arabako Foru Aldundiaren aurrekontu antolamenduaren “10601.0702.7700002 Araba Berritzaile enpresak”, 1.250.000,00 eurokoa.

– 2018rako indarrean dagoen Arabako Foru Aldundiaren aurrekontu antolamenduaren “10601.0702.7700003 Araba Berritzaile autonomoak”, 48.000,00 eurokoa.

– 2017rako indarrean dagoen Arabako Foru Aldundiaren aurrekontu antolamenduaren “10601.0702.7810001 Araba Berritzaile elkarteak”, 75.000,00 eurokoa.

Oinarri orokorren 7.2. oinarria betez (Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 6ko 17/2012 Foru Dekretuaren bidez onartutakoa), saileko diputatu titularrari ahalmena ematen zaio aurrekontuko partida bakoitzari esleitutako funtsak birbanatzeko, Balorazio Batzordeak hala proposatuta. Horretarako, ebazpena emango du, betiere deialdiaren aurrekontu osoa errespetatuz.

Deialdiak ongi funtzionatzea bermatzeko, gehieneko zenbateko guztiaren %10erainoko kopuru gehigarria ezarri da, Arabako Lurralde Historikoaren Dirulaguntzei buruzko 11/2016 Foru Arauko 21.2. artikuluan, urriaren 19koan, ezarri zenez.

3. artikulua. Erakunde onuradunak

3.1. Deialdi honetan jasotzen diren onurak eskuratu ditzakete:

a) Sozietate egoitza eta zerga egoitza Arabako Lurralde Historikoan duten enpresa txiki eta ertainak (ETEak), beren osaera juridikoa edozein dela ere, edo gutxienez aktibitate zentro bat lurralde historikoaren barruan daukatenak. Sortu zenetik edo aktibitatea hasi zuenetik eskaera egiten duen egunera gutxienez urte bi igaro behar dira. Lehenago beste izen edo forma juridiko baten pean jarduera bera egiten bazuten haien hasierako eraketa hartuko da kontuan haien antzintasuna zenbatzeko.

b) Arabako Lurralde Historikoan aktibitate zentroa duten zentro teknologikoak edota ikerketa zentroak, Araban irakaskuntza unitatea duten unibertsitateak eta Araban helbide soziala eta fiskala dauzkaten fundazioak eta enpresa elkarteak eta I+Gko enpresa unitateak.

c) Arabako Lurralde Historikoan ekoizpen edo zerbitzu zentroa duten zentro teknologikoak edota ikerketa zentroak, Araban irakaskuntza unitatea duten unibertsitateak eta Araban helbide soziala eta fiskala dauzkaten fundazioak eta enpresa elkarteak eta I+Gko enpresa unitateak.

3.2. Deialdi honen ondorioetarako, enpresa bat ETE izango da 250 soldatapeko baino gutxiago badauka, haren urteko negozio bolumena 50 milioi eurotik gorakoa ez bada eta haren urteko balantzea 43 milioi eurotik gorakoa ez bada.

3.3. Erakunde onuradunek egunean egon beharko dute zerga betebeharreran eta Gizarte Segurantzarekikoetan, 58/2004 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera hura frogatuzetik salbuetsita egon ezean, bai emateko ebazpenaren, bai dirulaguntza ordaintzeko unearen aurretik.

Erakunde onuradunak Gizarte Segurantzako inolako erregimenetan kotizaziorako kontu koderik esleituta ez badu, enpresako bazkide guztiek Gizarte Segurantzarekin egunean egon beharko dute.

3.4. Ezin dira onuradun izan sozietate publikoak, ezta erakunde administrazioarenak diren berezko nortasun juridikoa duten erakundeak ere, Araban irakaskuntza unitateren bat duten unibertsitateak (goiko 3.1.c) puntuak aipatutakoak) izan ezik.

3.5. Halaber, kanpoan geratzen dira ezarritako epearen barruan laguntza lerro honetako aurreko deialdietan diruz lagundutako jarduerak egin eta ordaindu izana frogatu ez duten erakunde eskatzaileak, Ekonomia Garapenaren Zerbitzuaren iritziz haiek ez egiteko arrazoiak behar beste argudiatu balira izan ezik.

4. artikulua. Dirulaguntza jaso dezaketen jarduera berritzaileak eta gastuak

4.1. Hurrengo jarduera berritzaile hauen barruan kokatutako jarduketak diruz lagundu ahalko dira:

1. Produktu edo zerbitzuko berrikuntza:

Erakundearentzat erabat berriak diren produktu edo zerbitzuak sortzera bideratutako jarduerak edo, bestela, ezaugarrien eta erabileren aldetik lehengo produktuak nabarmen hobetu dituzten jarduerak. Produktu horiek katalogoan sartu behar dira eta merkatura irteteko edo saltzeko asmo argia izan behar da. Besteak beste, produktu edo zerbitzuen bideragarritasun azterlanak egin ahal izango dira, baita produktuen ikerketa eta garapena, eta produktuon zehaztasun teknikoan, osagaien eta materialen hobekuntzak ere.

2. Berrikuntza produkzio prozesuetan:

Ondasun eta zerbitzuen eta/edo horniduren produkzioko metodoak garatzera edo egokitzen bideratutako jarduera guztiak barne hartzen ditu.

3. Berrikuntza antolaketan:

Erakundearen antolaketa metodo berriak edo estrategia korporatibo berriak ezartzea, eta/edo produktu zein zerbitzu berrien gainean ikasitakoak eraldatzen dituzten eta erakundearen barruan sormena bultzatzen duten antolamendu egiturak ezartzea.

Hala ere, erakundearen esparru guztietan kudeaketa eraginkorraren lehiakortasuna sustatzeko jarduketak Eusko Jaurlaritzaren eta hiru aldundien INNOBIDEAK-Kudeabide Programara bideratuta egon beharko dira.

4. Berrikuntza marketinean eta merkatuetan / Nazioartera zabaltzea:

Erakundearen marketin teknika berriak sartzeko jarduera guztiak edo produktu berria merkatu-ratzeak eragindako gastuak sartzeko dira. Besteak beste, arlo hauetan egiten diren aldaketak sar daitezke: produktuaren diseinua, eta aurkezpena edo paketatzea; produktua erakustea; produktuen promoziorako eta bezeroarengana hurbiltzeko tresna berriak; merkaturatzeko sareak edo bideak; bezeroak leial bihurtzeko estrategiak eta beste merkatu batzuk bereganatzeko informazio iturriak. Halaber, sartu ahalko dira nazioartera zabaltzeko ekintzak, erakundearentzat berritzaileak direnak eta estatutik kanpoko merkatuetan direnak, nazioarteko merkaturatutako produktu berriak merkaturatzeko eta ateratzeko ekintzak, kanpoko merkatu berrietako bideragarritasun azterlanak edo kanpora zabaltzeko beste ekintza berritzaile batzuk.

5. Berrikuntza Industria 4.0 kontzeptuaren esparruan:

Ikusita nolako garrantzi estrategikoa duen Arabako ekonomiarentzat fabrikazio aurreratuak (Industria 4.0), atal honek besteak ez bezala bereizi jasotzen du teknologia digitalak intentsiboki erabiltzea enpresetan, hala nola zibersegurtasuna, big data, gehikuntza bidezko fabrikazioa, 3D inprimatzea, lankidetzaren bidezko robotika, errealitate handitua eta errealitate birtuala, sistema ziberfisikoa eta gauzen internet. Hauexek lortzera bideratutako jardunak sartzeko dira:

- Industria enpresetako ekoizpen prozesuak digitalizatzea ahalbidetzen duten teknologiak sartzea.

- Produktu eta zerbitzu teknologikoki aurreratuak eta balio erantsi handiagokoak sortzea industria enpresetan.

- Lankidetzaren, balio kateko eragileen artean, enpresa aniztuneko industria ekosistema berriak konfiguratzeko.

6. Beste jardueren berritzaile batzuk:

Arestiko puntuetan sartu ez diren beste jardueren batzuk biltzen ditu, erakundeak garatu eta berarentzat berritzaileak badira; kasu horretan, berritzaileak direla eta produktibitatea eta lehiakortasuna handitzen egingo duten ekarpena argudiatu beharko du.

4.2. Erakunde eskatzaileak aipatutako berrikuntza jardueraren bat kontratatzean sortutako kanpo gastuak diruz lagundu ahalko dira.

4.3. Halaber, dirulaguntza jaso dezakete deialdi honetara aurkeztutako berrikuntza jardueraren baten diseinu, garapen, gauzapen, jarraipen eta/edo ebaluazioari lotutako langile berriak (ikerlariak eta/edo teknikariak eta/edo sortzaileak) kontratatzeke barneko gastuek.

4.4. Arau orokor gisa, honako hauek ez dira dirulaguntzaren xede izango:

- Erakunde kontratatzailearen eta kontratatuaren artean loturak daudenean izandako kanpoko gastuak.

- Barneko gastuak, aurkeztutako berrikuntza jarduerari lotutako kontratazio berrietan izandakoak izan ezik.

- Aktibo finkoetako inbertsioak, erakundearentzat berarentzat software informatikoa berariaz garatzeko edo egokitzeko gastua izan ezik; azken horrek dirulaguntza jaso dezake. Beraz, ez du dirulaguntzarik jasoko software informatiko arrunta eskuratzeko.

- Web orri estandarrak garatzea.

- Materialen erosketak, baita material horiek prototipoen garapenerako beharrezkoak direnean ere.

- Eraikuntza eta instalazio jardueren lagungarriak (elektrizitatea, giroztea, segurtasuna, etab.).

- Erakunde eskatzailearen ustiapenerako makinak, ekipamenduak edo lanabesak diseinatu eta garatzeko lanak, haiek saldu dituen erakunde hornitzaileak berak egiten baditu.

- Ingurumenaren gaineko azterlan edo proiektuak, baimenak lortzeko egiten badira, besteak beste, jardueren baimenak lortzeko.

- Ibilgailu alokatuen eta taxiaren gastuak, kilometro sariak, bidaiak, hotelak, otorduak, telefonoa.

- Produktu eta zerbitzuen homologazioak lortzea eta arauak ezarri eta ziurtagiriak lortzeko beharrezko gastuak, salbu eta nazioartekotze jardueren barruan kokatuta badaude.

- Helburu nagusitzat prestakuntza daukaten gastuak.

- Gastu errepikakorrek, esaterako software lizentziak, web ostalaritzako gastuak, zerbitzari gastuak, etab.

- Edukiak sortzeko gastuak eta web posizionamenduko gastuak.

- Estatu mailako zein nazioarteko azoketan parte hartzeko edota bertaratzeko gastuak.

– Balio erantsiaren gaineko zerga (BEZ) eta zeharkako beste zerga batzuk, salbu eta aitopenean BEZa kendu ezin duten erakunde onuradunen kasuan; horrelakoetan, BEZa gastutzat hartu ahalko da.

4.5. Prototipoak diruz lagundu ahalko dira, baldin eta horiek honelakoak badira:

- merkaturatuezinak.
- industria eta merkataritza ustiatagia abian jarri baino lehenagokoak.
- geroago erakundearen ibilgetuan sartuko ez direnak.

4.6. Ekonomia Garapenaren Zerbitzuaren iritziz erakundeak proposatutako jardueraren batek laguntza deialdi honen helburuari egindako ekarpena nahikoa ez bada, kanpoan utzi ahalko dira esleitu behar den dirulaguntza kalkulatzeko.

4.7. Baimenduta dago dirulaguntza jaso dezaketen kanpoko gastuen ehuneko 100eraino azpikontratatzea, Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 27. artikuluan xedatutako baldintzak betez.

5. artikulua. Kontratazio berrien betekizunak

5.1. Deialdi honen babesean dirulaguntza jasotzen duten kontratazio berriek baldintza hauek bete beharko dituzte:

– barne gastuak diruz laguntzeko modukoak izateko deialdi honetan diruz lagundutako kanpo gastu bati lotuta egon beharko dute.

– laguntza eskatzen den berrikuntza jardueraren bati lotutako zereginak egiteko izatea.

– ikertzaileak, teknikariak edota sortzaileak kontratatzea, ikasketa egokiak dituztenak kategoria horietan sailkatu ahal izateko.

– kontratatzen den pertsonak erakundeko zuzendaritza taldeko inorekin ez izatea odol bidezko nahiz ezkontza bidezko lehenengo edo bigarren mailako ahaidetasunik.

– kontratatutako pertsonak emandako zerbitzu edo eginkizunek eta Gizarte Segurantzaren kotizazio talde edo oinarriek bat etorri beharko dute; halaber, lan baldintzek erakundearen aplikatzen den hitzarmenean xedatutakoa bete beharko dute.

– gutxienez sei hilabeteko kontratua egitea, lanaldi osokoa, erakunde eskatzaileak egokitzen jotzen dituen kontratu erak erabiliz, lan arloko legeriaren arabera.

– ezingo da sartu erakunde eskatzailearen sail batean lehenago sail horretan plantilla murritu bada, lan legediaren arabera oinarritu eta argudiatutako arrazoiak egon ezean.

– kontratazio berria Arabako lan zentro batean kokatzea, nazioartera zabaltzeko jardueretan izan ezik; haietan, kontratatutako pertsonak jarduera horiek egiten diren eremu geografikoan lan egin ahalko du.

5.2. Dirulaguntza jasotzen duten kontratazio berriak eskaera dataz geroztik eta 2018ko ekainaren 14a baino lehenago, biak barne, egin beharko dira.

5.3. Laguntza eskatzen den berrikuntza jarduerak egiteari lotutako kontratazio berrietarako dirulaguntzak jasotzeko 5. artikuluan honetan xedatutako baldintzak bete, haien dirulaguntza onartu eta behar bezala arrazoitu beharko dira.

6. artikulua. Jarduerak egiteko epea eta aplikazio eremua

6.1. Erakunde onuradunek Arabako Lurralde Historikoan ezarri beharko dituzte dirulaguntza jasotzen duten jardueren emaitzak edo bertan egin beharko dituzte jarduera horiek, kasuan kasu, nazioartera zabaltzeko jarduerak izan ezik.

6.2. Dirulaguntza jaso dezakete laguntza eskatu ondoren eta 2018ko abenduaren 14a baino lehenago, hura barne, egiten diren jardueretan sortutako gastuak.

7. artikulua. Dirulaguntzen zenbatekoak eta mugak

7.1. Hona hemen deialdi honetan aurreikusten diren dirulaguntzen banaketa eta ehunekoak:

- a) ETEak: dirulaguntza jaso dezakeen gastuaren ehuneko 30.
- b) Gainerako erakunde onuradunak: dirulaguntza jaso dezakeen gastuaren ehuneko 50.

7.2. Langile berriak kontratatzean (ikertzaileak edota teknikariak edota sortzaileak), gehienez soldata kostu gordinaren %30eko dirulaguntza emango da, erakunde onuradunaren gizarte segurantzaren kostuak barne, betiere diruz lagundutako jarduketan eskusibotasunez arituko bada. Arduraldia partziala bada, jarduketari eskainitako arduraldiaren neurri proportzionalan kalkulatu da dirulaguntza. Dirulaguntzarako eskubidea lan kontratua sinatzen denetik 2018ko abenduaren 14 arte sortuko da.

7.3. Kanpoko gastuetarako dirulaguntzaren gehieneko muga 30.000,00 eurokoa da, erakunde onuradun eta urte bakoitzeko. Erakunde onuradunak aurkeztutako jardueren balioespenean 80 puntu edo gehiagoko kalifikazioa jasotzen badu, muga hori 40.000,00 euroraino handituko da.

Kontratazio berrien barne gastuen kasuan, urteko muga 6.000,00 eurorainokoa izango da gizonak kontratatzen badira eta 10.000,00 eurorainokoa emakumeak kontratatzen badira. Gizonak eta emakumeak batera kontratatzen direnean, gizonen eta emakumeen kontratazioan izandako soldata kostuaren proportzioan kalkulatu dira mugak.

7.4. Jarduerak dirulaguntza jaso ahal izateko onartu behar den gutxieneko dirulaguntzaren zenbatekoa 1.500,00 eurokoa da, autonomoentzat izan ezik; haientzat 1.000,00 eurokoa izango da.

8. artikulua. Jardunbidea bideratzeko eskumena duten organoak

8.1. Prozedura Ekonomia Garapenaren Zerbitzuak bideratuko du.

8.2. Balorazio Batzordea honela egongo da eratuta:

- Batzordeburua: Ekonomia Garapenaren zuzendaria edo horrek eskuordetzen duen pertsona.
- Batzordekidea: Ekonomia Garapenaren Zerbitzuaren burua edo horrek eskuordetzen duen pertsona edo zuzendariak hautatutako pertsona.
- Idazkaria: Ekonomia Garapenaren Zerbitzuko teknikari bat.

9. artikulua. Eskaerak aurkezteko epeak eta modua

9.1. Eskaerak aurkezteko epea deialdi hau indarrean jartzen denean hasiko da eta 2018ko martxoaren 23ko 14:00ak arte bukatuko da.

9.2. Eskabideak Arabako Foru Aldundiaren erakunde webgunean <http://www.araba.eus/web/AyudasDesarrolloEconomico> eskuragarri dagoen ereduari egokitu beharko zaizkio.. Hala ere, eredu hori Ekonomia Garapenaren Zerbitzuan egongo da eskuragarri (Probintzia plaza 5., 1. solairua, 01001 Gasteiz).

9.3. Eskaera horiek, ahal dela, bitarteko elektronikoen bidez aurkeztuko dira Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa <https://e-s.araba.eus>, horretarako, lehenago eskatzaileek sartzeko ziurtagiri digitala izan beharko dute. Egoitza elektronikora sartzeko bide desberdinak eta erakunde ziurtatzaile batek hizatutako ziurtagiri elektronikoa eskatzeko nora jo argitzeko informazioa Ezagutu egoitza – Nola sartu atalean aurkitzen da.

Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean ere aurkeztu ahal dira (Probintzia plaza 5, 01001 Gasteiz), edo itundutako udalen erregistro orokorretan, eta Ekonomia Garapenaren Zerbitzuari zuzenduta egongo dira (Arabako Foru Aldundiaren Ekonomia Garapenaren Zuzendaritza), Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan xedatutakoa ere kontuan hartuta.

Eskaera Foru Aldundiko Erregistro Nagusian paperean aurkezten duten erakunde eskatzaileek eskaeraren dokumentazio osoa alavainnova@araba.eus helbide elektronikora igorri beharko dute. Bidalketa hau paper formatuan egindako eskaera ofizialaren osagarri izango da; horrenbestez, aurkezpen ondorioetarako ez du inolako baliorik izango.

9.4. Eskabidea egiteko unean aurkeztu behar den dokumentazioan eskabide eredia sartuko da, behar bezala osorik beteta, eta harekin batera baita informazio hau ere:

a) Erakunde eskatzaileari eta aurkeztutako jarduera multzoari buruzkoa:

– Erakundearen eta aurkeztutako berrikuntza jardueren deskripzio memoria, eskaera balioesteko erabiliko dena, deialdi honen 10. artikuluan xedatutako irizpideen arabera.

– Hala badagokio, INNOBIDEAK-Kudeabide programako dokumentazioa: erkatze txostena eta ekintza plana.

– IFZaren fotokopia.

– Autonomoen kasuan, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren (JEZ) ziurtagiri historikoa.

– BEZaren salbuespena frogatzeko dokumentazioa (erakundea salbuespen baldin badago soilik).

b) Aurkeztutako jarduketa bakoitzari buruz:

– Lana egingo duen kanpoko hornitzailearen eskaintzaren fotokopia.

– Aurkeztutako kanpo gasturen baten aurrekontua 18.000,00 euroko kopuruaren parekoa edo handiagoa bada, eskatutako hiru eskaintzen fotokopiak, aukeraketaren justifikazioarekin batera, aukeratutakoa ez bada ekonomikoki abantailatsuen izan.

– Hala badagokio, deialdi honetan aurkeztutako jarduketa berberak egiteko eskatutako beste laguntza batzuk / beste laguntza batzuen ebazpenak.

c) Kasuan kasu, kontratazio berriei buruz:

– Aurkeztutako berrikuntza jardueraren bati lotutako konpromisoa, egin behar den lana azalduz.

– Kontratatu behar den pertsonaren ezaugarriak.

– Kontratazioaren epeak, kostuak eta baldintzak.

9.5. Erakunde eskatzaileak baliozkotasuna emango die Ekonomia Garapenaren Zuzendaritzako laguntza eskabide eredian identifikatutako harremanetarako pertsonaren helbide elektronikora bidalitako komunikazio guztiei.

9.6. Dirulaguntza eskaera aurkezteak berekin ekarriko du eskatzaileak baimena ematen duela erakunde izapidetzaileak zuzeneko moduan eskuratu ahal izateko 3. artikuluan adierazten diren inguruabarren egiaztagiria, eta bereziki Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko egoerari buruzkoak.

10. artikulua. Balorazio irizpideak

Hona hemen eskabideak balioesteko irizpideak eta puntuazioak. Gutxienez 50 puntu lortu beharko dira dirulaguntza jaso ahal izateko.

• Jardueren berrikuntza edo berritasun maila (0-30).

– Jarduerak kokatzen diren berrikuntza mota eta haien berrikuntza maila.

– Bezeroak, merkatua, lehiatzaileak, ekoizkinak, teknologiak eta abar direla eta, negozio estrategiari eta birkokapenari egindako ekarpena.

- Kudeaketa estrategiari eta lehiatzeko gaitasuna hobetzeari egindako ekarpena; bezeroen zehaztapenei emandako erantzunari, kostu/prezioari eta epeari dagokienez.
- Zein esparrutan den berritzailea (nazioartean, estatu mailan edo eskualde mailan).
- Jarduketetatik espero diren emaitzak (0-30).
 - Produktu, zerbitzu, prozesu edo enplegu berriak sortzeko espektatibak.
 - Merkataritza ustiapen eta fakturazioaren eraginaren aurreikuspenak Nazioartekotzeari ekarpena egitea.
 - Lurraldearen ekonomia sarea dibertsifikatzen eta lurralde mailan orekatzen ekarpena egitea.
 - Euskadiko espezializazio adimenduen estrategiarekiko engaiamendua: Industria 4.0, Energia, Bio-osasuna.
- Jarduketetan parte hartzen duten enpresen gaitasun teknikoa eta finantzarioa (0-15).
 - Jarduketetan landutako materian parte hartzen duten erakundeen esperientzia eta gaitasuna.
 - Jarduketetan eskatutako giza baliabideen egokitzapena.
 - Planteatutako helburu eta jardueri dagokienez aurrekontu koherentea, eta aurrekontuaren finantzaketaren aurreikuspena.
- Ekoizpen aurreratuko jardunbideak (0-15).
 - Kudeabide programaren doako kudeaketaren erkaketak egitea.
 - Kudeaketa hobetzeko jarduera planak abiaraztea.
 - Kudeaketa aurreratua eta bikaintasuna saritzea.
 - Ekoizkinak garatzeko gaitasuna berri eta aztertze sistemak autoebaluatze tresnak eta berrikuntza zerbitzuak erabiltzea.
- Aurkeztutako memoriaren kalitatea eta eskatzailearen inplikazioa laneratze, genero berdintasun eta euskararen erabileraren politiketan (0-10).
 - Helburu eta metodologiaren deskribapena, argitasuna (lortzeko planifikatutako ekintzak).
 - Lanen definizioa, gauzatzeko kronograma.
 - Erakunde eskatzaileak laneratze, genero berdintasunerako eta euskara erabiltzeko politiketan duen engaiamendua.

11. artikulua. Ebazpena eta jakinarazpena

11.1. Organo eskudunak, Balorazio Batzordeak proposatuta, behar diren ebazpenak emango ditu; ebazpen horiek, ahal dela, baliabide elektronikoen bitartez jakinaraziko dira, eta ezinezkoa bada, gutun ziurtatuaren bidez, Administrazio Publikoen Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 41. eta 42. artikuluetan xedatutakoa aintzat hartuz.

11.2. Jakinarazitako ebazpen horrek bide administratiboa agortzen du, baina aukerako berraztertze errekurtsoa jar daiteke foru gobernu kontseiluari erabakia jakinarazi ondorengo egunen hasi eta hilabete igaro baino lehen, azaroaren 26ko 39/2015 Legearen, administrazio prozedura erkidearenaren, 123. artikulua xedatzen duenaren arabera. Bestela, zuzenean aurkatu daiteke administrazioarekiko auzietarako dagokion jurisdikzioaren aurrean, erabakia jakinarazi ondorengo egunean hasi eta bi hilabete igaro baino lehen.

12. artikulua. Ordaintzeko betebeharraren eta dirulaguntzaren ordainketaren onarpenerako justifikazioa

12.1. Onartutako dirulaguntzak ebazpenean nahiz ondorengo puntuetan xedatutako betekizuna eta baldintza guztiak bete ondoren likidatuko dira.

12.2. Arabako Foru Aldundiak dirulaguntza ordaintzeko betebeharra onartu ahal izateko, beharrezkoa izango da erakunde onuradunak 2018ko abenduaren 14ko 14:00ak arte iraungo duen epean ondoko dokumentu hauek aurkeztea:

– Egindako jarduketa guztien amaierako memoria, helburuen lorpen maila, gogobetetze maila, jarduketak egiteko egutegiaren betetze maila eta diruz lagun daitezkeen kontzeptuen desbideraketak zehaztuz.

– Kanpoko gastuen eta sarreraren eta/edo diruz lagundutako jardueren finantzaketaren koadroa.

– Fakturak eta froga balio bereko gainerako agiriak, jatorrizkoak zein fotokopia konpultsatuak. Beste herrialde batzuetako erakundeek egindako fakturak itzulita egongo dira, ingelesez egindakoak izan ezik.

– Diruz lagundutako eta egindako berrikuntza jarduerari lotutako kontratazio berrietan izandako barneko gastuen koadroa, gerentziak sinatua, hauek zehaztuta: izena, NANA, dedikazioa, orduko eta guztirako kostua, bai eta, kasuan kasu, kontratazio horien sarrerak eta/edo finantzaketa.

– Enplegu bulegoan erregistratutako lan kontratuaren kopia; hari NANaren kopia, kontratatutako pertsonaren Gizarte Segurantzako alta agiriaren kopia eta, gutxienez, lehen hilabeteko nominaren kopia erantsiko zaizkio.

– Erakunde onuradunaren erantzukizunpeko adierazpena, 5. artikuluan kontratazio berrietarako xedatutako baldintzak bete izana adierazten duena.

– Eskaintza hirukoitza eta arrazoitzeko txostena hautatutako eskaintza ekonomikoki onena ez bada (izandako benetako gastua 18.000,00 euroko mugaraino iritsi edo hura gainditzen badu eta eskabidean jaso ez balitz).

– Hala badagokio, deialdi honetan aurkeztutako jarduketa berberak egiteko eskatutako beste laguntza batzuk / beste laguntza batzuen ebazpenak, aldeztu aurretik aurkeztu ez badira.

Kanpoko profesionalak egindako fakturen nahiz kontratazio berriari lotutako barneko gastuen kasuan, erakunde onuradunak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren konturako atxikipenen zenbatekoa ordaindu beharko du. Kasu horretan, justifikatu beharreko ordainketa egin beharra onartuko da eta Arabako Foru Aldundiaren ardura izango da ordainketa horiek egiaztatzea eta bidezko justifikazio txostena egitea. Baldin eta, dirulaguntza ordaindu eta gero, egiaztatzen bada ez direla sartu egin beharreko atxikipenak, dirulaguntza itzultzeko eta hari dagozkion interesak ordaintzeko eskatuko da.

12.3. Arabako Foru Aldundiak dirulaguntza ordainduko du erakunde onuradunak Ekonomia Garapenaren Zerbitzuan eta 2019ko ekainaren 28ko 14:00al arte amaituko den epean, izandako gastuen ordainagiriak tipologiaren arabera.

a) Kanpoko gastuen kasuan, fakturen ordainketa bitarteko hauetatik edozein erabili ahalko da haiek frogatzeko:

– Jatorrizko banku ziurtagiria, ondoko datuak zehazten dituena: ordaintzailea, zenbatekoa, data eta ordainketaren edo transferentziaren hartzailea, eta izenpetuta edota bankuaren zigilua jarrita.

– Transferentzia telematikoen aginduak, ordainketa edo transferentzia egiten duen bankuaren zigilua jarrita.

- Posta arruntez jasotako banku laburpenak, jatorrizkoak.
- Posta elektronikoz jasotako banku laburpenak, ordainketa edo transferentzia egin duen bankuaren zigilua daramatenak.
- Libretetako edo kontu korranteetako mugimenduen kopia konpultsatua.
- Dirulaguntza jaso duen jarduera zehaztu eta hura izanik dagokion zenbatekoa ordaindu dela dakarten erosketa edo zerbitzu ordainagiriak edo tiketak; hura ezean, dirutan ordaindu bada, jatorrizko ziurtagiria emango da, sinatuta eta/edo fakturaren egilearen zigilua daramana, faktura zenbakia, zenbatekoa eta ordaintzeko eguna zehaztuta.
- Kontabilitateko P agiriak (Arabian irakaskuntza unitateren bat duten unibertsitate zentroek soilik).

b) Diruz lagundu eta ordaindutako berrikuntza jardueri lotutako kontratazio berriei lotutako barneko gastuaren kasuan, nominak eta Gizarte Segurantzarako kotizazioak ordaindu izana eta ordutegi kostua frogatu beharko dira, hauek erabiliz:

- Kasuan kasuko pertsonak eta proiektuko arduradunak sinatutako ordutegi parteak, emandako orduen ziurtagiriak.
- Enpresak ezarritako hitzarmenarekin edo hitzarmen kolektiboarekin bat etorritik, urteko lanaldia.
- Nominen eta bankuko kontu laburpenen edo transferentzia telematikoak egiteko agindu duen kopia, bankuaren zigilua jarrita. Ordainketa bidalketa bidez egiten bada eta banku laburpenean ez bada kasuan kasuko langilearen izena zehazten, erakundearen gerentziaren idazki bat erantsiko da, non adieraziko den langile horren nominaren ordainketa kasuan kasuko bidalketan egin dela.
- Gizarte Segurantzaren aplikazioaren bitartez sortutako TC1 agiria, jatorrizkoa zein kopia (baita konpultsatu gabe ere), eta ordaindu dela frogatzen duen banku laburpena.
- Gizarte Segurantzaren aplikazioaren bidez sortutako TC2 agiria edo haren kopia, konpultsatu gabe bada ere.

12.4. Oro har, ordainketen frogagiriak jatorrizkoak izan beharko dira, baina fotokopia konpultsatuak ere aurkeztu ahal izango dira.

12.5. Ordainketak arintzeko, unean unerako jarritako epe mugak baino lehenago aurkeztu ahal izango dira eskatutako agiriak.

12.6. Epe horiek igaro eta dirulaguntza ordaintzeko betebeharra onartzeko zein dirulaguntza ordaintzeko aurkeztu beharreko agiriak aurkeztu ez badira, edo aurkeztutako agirik guztiak badira, dirulaguntza zio horregatik murriztu edo baliogabe utziko da, dagokionaren arabera.

12.7. Ordainagiriak onartutako gastu osoaren zenbatekora iristen ez badira, dirulaguntzaren zenbatekoa proportzioan berregokituko da, eta dagokio kopurua baliogabe utziko da.

12.8. Ordaindu behar den dirulaguntzaren gutxieneko zenbatekoa, hura onartzean bezala, 1.500,00 euro da, autonomoentzat izan ezik, haientzat 1.000,00 euro izango baita.

12.9. Dirulaguntza jaso duten jardueri eragiten dien gorabehera edo aldaketa oro jakinaraziko zaio Ekonomia Garapenaren Zerbitzuari, eta behar diren erabakiak hartu eta erakunde onuradunari jakinaraziko dizkio berak. Hortaz, onartutako gastu osoaren mugarekin, aldaketak onartu ahalko dira hasieran dirulaguntza jasotako jardueretan eta haiei dagozkien zenbatekoetan, haietakoren bat gauzatu ez balitz ere.

Aldaketa horiek Ekonomia Garapenaren Zerbitzuaren oniritzia beharko dute. Aldaketak funtsezkoak badira, Ekonomia Garapenaren Zuzendaritzak onartu beharko ditu.

12.10. Aurreko paragrafoetan aipatutako dokumentazioa, dirulaguntza ordaintzeko betebeharrak aitortzeko zein zenbatekoa kobratzeko, ahal dela baliabide elektronikoen bitartez aurkeztu beharko da Arabako Foru Aldundiaren Egoitza Elektronikoa <https://e-s.araba.eus>.

Halaber, Arabako Foru Aldundiko Erregistro Nagusian (Probintzia Plaza 5, 01001 Vitoria-Gasteiz) edo itundutako udaletako erregistro nagusietan aurkeztu ahal da; edonola ere, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritakoa kontuan hartu ahal da.

Justifikazioa Foru Aldundiko Erregistro Nagusian paperean aurkezten duten erakunde eskatzaileek justifikazioaren dokumentazio osoa alavainnova@araba.eus helbide elektronikora igorri beharko dute. Bidalketa hau paper formatuan egindako eskaera ofizialaren osagarri izango da; horrenbestez, aurkezpen ondorioetarako ez du inolako baliorik izango.

12.11. Erakunde onuradunek gastuen agiriak aurkeztu ondoren, Ekonomia Garapenaren Zerbitzuak in situ egin ahalko ditu bisitak dirulaguntza jaso duten jarduerak egiaztatzeko.

13. artikulua. Dirulaguntzen bateragarritasuna

Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 6ko 17/2012 Foru Dekretuak (36. ALHAO, astelehena, 2012ko martxoaren 26a), izaera eta ematen dituen organoa edo administrazioa zein diren ere, oinarri orokorrak eta dirulaguntza jaso duten jarduerak jaso ditzaketen gainerako laguntzak onartzen dituenak, hamahirugarren oinarrian ezarritakoa aplikatu ez ezik, bateragarriak izango dira deialdi honetatik datozenetik, dirulaguntza jasotako gastuaren ehuneko 80raino iritsi arte.

Arabako Foru Aldundiaren Ekonomia Garapenaren Zuzendaritzaz beste administrazio unitateek emandako beste laguntza oro izan ezik, zeinak bateraezinak izango baitira.

14. artikulua. Garapena

Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreka Saileko foru diputatuari eskumena ematen zaio deialdi hau zuzen garatzeko, aplikatzeko eta interpretatzeko beharrezko den xedapen oro hartzeko.

15. artikulua. Deslokalizazioa eta enpresa eskualdatzea

Enpresen deslokalizazioari dagokionez, Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Aginduaren 43., 44., 45. eta 46. artikulua aplikatuko dira.

Eskualde Garapenerako Europar Funtsarekin (EGEF) batera finantzatutako zatirako, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko 1303/2013 (EB) Erregelamenduak 71. artikuluan xedatutakoa bete beharko da.

Bestalde, laguntza jasotzen duen erakundea ezingo da eskualdatu dirulaguntza ordaindu eta urtebete igaro arte lehenago Ekonomia Garapenaren Zuzendaritzak berariaz onartu gabe.

16. artikulua. Baterako finantzaketa

16.1. Deialdi honetan jasotako laguntzak Eskualdeen Garapenerako Europako Funtsak (EGEF) ere finantzatzen du, ehuneko 50ean, 2014-2020 EHPOren esparruan.

16.2. Europar funts horri buruzko Europako araudia beteko dela bermatzeko, erakunde onuradunek gastuei loturiko egiaztagirak gorde beharko dituzte, gutxienez 2030 arte.

16.3. Deialdi honen babesean emandako dirulaguntzak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko irailaren 17ko 1303/2013 (EB) Erregelamenduaren 115. artikuluko 2. zenbakian jasotako eragiketa zerrendan sartu ahal dira.

16.4. Erakunde onuradunek aparteko kontabilitatea edo kontabilitate kode egokia eduki beharko dute EGEFek kofinantzatutako eragiketekin lotura daukaten transakzio guztien inguruan.

17. artikulua. Emandako laguntza onartzea

Laguntza ematearen jakinarazpena jaso eta 15 eguneko epean erakunde onuradunak hari espresuki uko egiten ez badio emakida ebazpen honetan ezarritako baldintzekin onartu dela ulertuko da.

18. artikulua. Publizitatea eta komunikazioa

Erakunde onuradunak diruz lagundutako jarduerak zabaltzeko ekintzarik eginez gero, Arabako Foru Aldundiak emandako finantzaketa eta EGEFek emandako aldi bereko finantzaketa aipatu beharko ditu zabalkunderako baliatutako bitarteko eta materialetan; horrela, bada, erakunde horiek irudi korporatiboa dela-eta ezarritako oharretara egokituko dira.

19. artikulua. Emandako laguntza egokitzea

Deialdi honetan araututako dirulaguntzei heltzerik ez duten aurkeztutako eskabideak, kasuan kasu, Ekonomia Garapenaren Zuzendaritzako kudeatutako beste laguntza jarduera batzuetara eraman ahalko dira ofizioz.

20. artikulua. Araubide juridikoa

Deialdi honetan ezarritako prozedura Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 6ko 17/2012 Foru Dekretuaren bidez eta ondoren Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 18ko 6/2014 Dekretuak aurreko dekretuari egiten dion aldaketaren bidez onartutako oinarri orokorretan ezarritakoaren mendean dago, hauetan xedatutakoaren aurka ez badago: Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arau berria; Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege dekretua, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Araudia onartzen duena, nahiz dirulaguntzei buruzko ondorengo gainerako xedapenak.